

Euskal Herriko Ahotsak
ahotsak.com

*Mila Gorostegi Alberdi Mari
fruteriñekue*

*Azkoitia,
Gipuzkoa
(1936)*

Aurkibidea



Biografia



Azkoitiko Kale Nagusian jaio zen 1936an. Aita lasartearra zuen eta ama Azkoitikoa bertakoa. Eskola nazionaletan ibili zen. Amak janari denda zuen Azkoitiko berdura plazan eta Mila 12 urterekin hasi zen bertan amari laguntzen. Amak Maria zuen izena eta "Mari fruterie" deitzen zioten; hortik bere ezizena ere "Mari fruteriñekue". Bakailao lehorra eta beratua saltzen zituzten eta horixe zen beraien berezitasun handienetako bat. 1970. urtean Urkixo kalean beste denda bat ireki zuten. Ordutik aurrera ama han egoten zen eta berak senarrarekin berdura plazan jarraitu zuen lanean.

Zintak

AZK-042

- **Proiektua:** Azkoitiko ahotsak
- **Elkarrizketatzailea(k):** Otegi, Aitziber
- **Data:** 2010-02-04
- **Iraupena:** 46 min
- **Euskarria:** Bideo digitala
- **Kodifikatzailea:** Elexpuru, Juan Martin

Pasarteak

1. Izen-abizenak eta ogibidea

- **Erref:** AZK-042/001
- **Iraupena:** 0:01:15. **Hasi:** 00:00:00. **Bukatu:** 00:01:15
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Merkataritza, dendak (kokapena)
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
- Baserría » Baserriko lanak » Herrira saltzera, erostera

Laburpena:

Azkoitiko Kale Nagusian jaiotakoa. Aita Lasartekoa, ama Azkoitiarra. Berdura plazan saltzaile ume-umetatik

Transkripzioa

-Bueno, hasteko izena eta abizena ta non jaio ziñen esaten baiazu?
-Ni, hoeta hamaxeixin, "el treinta y seis". Milagros Gorostegi Alberdi.
-Nun jaio ziñen?
-Axkoittin.
-Kalen, Azkoitiko kalen?
-Bai, bai kalien.
-Ze kaletakoa zea?
-Kale Nagusia, oin botata dao etxe hori; botika onduen zan hor etxe bat, eta hor jaio nintzen.
-Gurasoak, hemen azkoittiarak zittuzun?
-Ez, aitte Lasartekue; ama azkoittiarra.
-Eta betidanik eon zea hemen, plazan? Saltzaile bezela?
-Bai, gure ama eote zan; nere ama eote zan, hobeto esateko, leno. Ta ni hamabi urtekin hasi nitzen, beari laguntzen hemen.
-Beti izan zun hemen, Berdura Plazan hontan, denda?
-Hemen eta gero daukeu beste denda bat han, Julio Urkijon, baiño haure ya geruo iriki zan.
-Eta hau zer zan, zuen denda bat balitz bezela, ala...?
-Aiuntamentun puestuek.
-Aiuntamentukoa zan.
-Bai. Ta oin´e bai. Oin´e bai.
-Eta azoka hemen itten zan?
-Beti, beti.
-Eta azoka hemen etten zan?
-Beti

2. Saltoki ezberdin asko azokan

- **Erref:** AZK-042/002
- **Iraupena:** 0:01:57. **Hasi:** 00:01:15. **Bukatu:** 00:03:12
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Merkataritza, dendak (kokapena)

Laburpena:

Azoka egunero egiten da, baina larunbatetan berezia. Dozena bat saltoki zeuden lehen eta alondegia ere bai. Arrandegiak, harategiak, frutategiak... denetik zegoen lehen.

3. Baserritarren saltokiak azokan

- **Erref:** AZK-042/004
- **Iraupena:** 0:02:02. **Hasi:** 00:03:18. **Bukatu:** 00:05:20
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Merkataritza, dendak (kokapena)
- Baserrria » Baserriko lanak » Herrira saltzera, erostera

Laburpena:

Erdian baserritarrek eta bueltan dendariak egoten ziren. Baserritarrek jeneroa lurrean edukitzen zuten. Goizez egiten zen eta oso jendetsua izaten zen.

4. Erosle asko plazan

- **Erref:** AZK-042/005
- **Iraupena:** 0:02:02. **Hasi:** 00:05:20. **Bukatu:** 00:07:22
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Merkataritza, dendak (kokapena)
- Euskara » Lexikoa
- Baserría » Baserriko lanak » Herrira saltzera, erostera

Laburpena:

<p>Jende guztia plazara etortzen zen erosketak egitera. Inguruko dendetara ere bai. Ez zegoen arazorik baserritarren eta dendarien artean. Jeneroa "epelenie" izeneko kale bitartean deskargatzen zuten.</p>

5. Dendarako jeneroaren jatorria

- **Erref:** AZK-042/006
- **Iraupena:** 0:01:25. **Hasi:** 00:07:22. **Bukatu:** 00:08:47
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lanbideak » Negozioak, dendak

Laburpena:

<p>Biltegi handietatik ekartzen zen dendarako jeneroa. "Almacen de coloniales". Saltzaileak eta garraiolariak arduratzen ziren horretaz.</p>

6. Fruta eta bakailaoa salgai nagusiak

- **Erref:** AZK-042/008
- **Iraupena:** 0:03:04. **Hasi:** 00:09:16. **Bukatu:** 00:12:20
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Elikadura » Jatekoa eta edatekoa
- Lanbideak » Negozioak, dendak

Laburpena:

<p>Fruta eta bakailaoa saltzen zuten asko. Bakailaoa beratuta, lehorrean, puskatuta, denera. Bilbotik ekartzen zuten.</p>

7. Pisua eta prezioa

- **Erref:** AZK-042/009
- **Iraupena:** 0:02:10. **Hasi:** 00:12:20. **Bukatu:** 00:14:30
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lanbideak » Negozioak, dendak
- Ekonomia eta industria » Txanponak, diru-kontuak

Laburpena:

<p>Nolako pisuak erabiltzen ziren dendan. Bazuten mekanismo bat prezioa markatzeko. Dendariek ondo hartzen zuten elkar jeneroak elkarri uzteko eta prezioak adosteko orduan.</p>

8. Produktuak soltean edo potoetan

- **Erref:** AZK-042/010
- **Iraupena:** 0:02:35. **Hasi:** 00:14:30. **Bukatu:** 00:17:05
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lanbideak » Negozioak, dendak

Laburpena:

<p>Lehen ez zegoen iraungitze-datarik. Produktu gehienak ontziratu gabe edo ontziratuta etortzen ziren. Nola saltzen zen olioak. Otarrak erabiltzen ziren erosketetarako.</p>

9. Ogiak saltzen

- **Erref:** AZK-042/011
- **Iraupena:** 0:01:00. **Hasi:** 00:17:05. **Bukatu:** 00:18:05
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lanbideak » Negozioak, dendak

Laburpena:

<p>Lehen hiru okinen ogiak saltzen zituzten, baina denak antzekoak. Orain ogi normalak saltzen dituzte, eta astebukaeran baserrikoak ere bai.</p>

10. Estraperlo garaia (1)

- **Erref:** AZK-042/013
- **Iraupena:** 0:02:06. **Hasi:** 00:19:50. **Bukatu:** 00:21:56
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Ekonomia gerraostean

Laburpena:

Beldur handia zieten "delegaduei", inspektoreei. Beti isunen beldur. Ezagun bati gertatutakoa. Guardia zibilen emazteak ziren txarrenak, egoeraz aprobetxatzen zirelako.

11. Estraperlo garaia (2)

- **Erref:** AZK-042/015
- **Iraupena:** 0:01:33. **Hasi:** 00:22:10. **Bukatu:** 00:23:43

- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Ekonomia gerraostean
- Lanbideak » Negozioak, dendak

Laburpena:

Guardia zibilen emazteen pasadizoarekin jarraitzen du. Azukrea, olio, patata, estraperloko gauza asko egoten zen. Edozein saltzailek ekartzen zituen.

12. Dena euskaraz

- **Erref:** AZK-042/016
- **Iraupena:** 0:00:24. **Hasi:** 00:23:43. **Bukatu:** 00:24:07
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Euskararen egoera

Laburpena:

Dena euskaraz egiten zuten. Amak ez zekien ia erdararik.

13. Arrain-saltzaileak Azkoitiko kalean

- **Erref:** AZK-042/017
- **Iraupena:** 0:01:18. **Hasi:** 00:24:07. **Bukatu:** 00:25:25
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Merkataritza, dendak (kokapena)
- Lanbideak » Batetik bestera zebiltzanak

Laburpena:

<p>Ez zuten ohiturarik beren jeneroa ozen iragartzeko; bai, ordea, arrain-saltzaileek: kalez kale ibiltzen ziren, kostatik trenean etorrita.</p>

14. Edariak eta olio ontziratu gabe

- **Erref:** AZK-042/018
- **Iraupena:** 0:02:15. **Hasi:** 00:25:25. **Bukatu:** 00:27:40
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Elikadura » Jatekoa eta edatekoa
- Baserria » Baserriko lanak » Herrira saltzera, eroztera
- Lanbideak » Negozioak, dendak

Laburpena:

<p>Olio, koñaka eta abar ontziratu gabe saltzen ziren. Orain ezin da. Isunaren arriskua. Baserriko arrautzarik ere ezin dute saldu. Orain dela hiru urte gertatu zitzaion pasadizo sinestezina.</p>

15. Prezioak erdaraz

- **Erref:** AZK-042/019
- **Iraupena:** 0:01:27. **Hasi:** 00:27:40. **Bukatu:** 00:29:07
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Euskararen egoera

Laburpena:

Erdaraz ikasi zituzten zenbakiak eskolan eta erdaraz esaten zituzten prezioak plazan.

16. Txorizo-panplona eta urdaiazpikoa

- **Erref:** AZK-042/020
- **Iraupena:** 0:00:53. **Hasi:** 00:29:07. **Bukatu:** 00:30:00
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lanbideak » Negozioak, dendak
- Ohiturak eta bizimodua » Elikadura » Jatekoa eta edatekoa

Laburpena:

<p>Txorizo-panplona eta urdaiazpikoa ziren saltzen ziren hestebete bakarrak.</p>

17. Eskolan dena erdaraz

- **Erref:** AZK-042/021
- **Iraupena:** 0:01:41. **Hasi:** 00:30:00. **Bukatu:** 00:31:41
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Zigorak
- Euskara » Euskararen egoera
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola

Laburpena:

<p>Eskolan dena erdaraz. Sorkunde izena zutenei ere "Concepción" deitzen zieten. Bere alaba Aintzaneri ere "Gloria" deitzen zioten zenbait mojek Franco hil arte.</p>

18. Eskolako oroitzapen ona

- **Erref:** AZK-042/022
- **Iraupena:** 0:00:37. **Hasi:** 00:31:41. **Bukatu:** 00:32:18
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » Genero berdintasuna
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola

Laburpena:

Lau urterekin hasi zen "Nazionaletan". Gustura ibili zen. Neskak eta mutilak aparte.

19. Kolean paseatzen neskak

- **Erref:** AZK-042/023
- **Iraupena:** 0:00:37. **Hasi:** 00:32:18. **Bukatu:** 00:32:55
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » Genero berdintasuna
- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Gerratik itzulera

Laburpena:

Emakumeak ezin ziren tabernetara sartu. Kale Nagusian gora eta behera ibiltzen ziren, mutilak txikiteoan ari ziren bitartean.

20. Denda asko Azkoitian

- **Erref:** AZK-042/024
- **Iraupena:** 0:01:53. **Hasi:** 00:32:55. **Bukatu:** 00:34:48
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Merkataritza, dendak (kokapena)

Laburpena:

Herrian denda asko zegoen, batez ere janari-dendak. Arropa-dendak gutxiago. Berdura-plazan ez zen arroparik saltzen. Kanpoan bai, azokan.

21. Josten ikasten

- **Erref:** AZK-042/027
- **Iraupena:** 0:01:44. **Hasi:** 00:36:22. **Bukatu:** 00:38:06
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lanbideak » Sastreak, jostunak

Laburpena:

Antonia Cámararekin ibili zen josten ikasten. Denetik ikasi zuten. Patroiak egiten ere bai, "Corte y Confección".

22. Abarketagintzan laguntzen

- **Erref:** AZK-042/028
- **Iraupena:** 0:01:01. **Hasi:** 00:38:06. **Bukatu:** 00:39:07
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserría » Baserriko lanak » Baserriari lotutako lanbideak

Laburpena:

Ez du abarketagintzan lan egin baina umetan amamari laguntzera joaten zen eta asko gustatzen zitzaion hango giroa. Nolakoa zen kontatzen du.

23. Eliz giro handia gaztetan

- **Erref:** AZK-042/029
- **Iraupena:** 0:00:47. **Hasi:** 00:39:07. **Bukatu:** 00:39:54
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erljioa
- Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Eliza giroko ospakizunak

Laburpena:

Maiatzeko Loreak, San Inazioaren Bederatziurrena eta abar, gaztetan eliz giro handia zuten. Gero kalean paseatu... Hori zen orduko beren zoriona.

24. Jolasak: txintxerriñe, tortoloska..

- **Erref:** AZK-042/031
- **Iraupena:** 0:02:12. **Hasi:** 00:40:17. **Bukatu:** 00:42:29
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Jolasak

Laburpena:

Txintxerrinen, tortoleska eta abar ibiltzen ziren. Tortoleska nola jolasten zen azaltzen du. Alaba bakarra izanda, panpina, bizikleta eta horrelako gutiziatxoak izan zituen.

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.

2025-11-14

CC-by-sa | Ahotsak.eus

Badihardugu Euskara Elkarte
Markeskua Jauregia, 20600 Eibar
943121775 - ahotsak@ahotsak.com